



**“D ereduko  
kirola”**  
ikerketa-ekintza  
proiektua  
(2016-2018)  
**Laburpena**



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

## AURKIBIDEA

**SARRERA** ..... 3 or.

**A. Zer izan da?** ..... 4 or.

1. PROIEKTUAREN HELBURUA ..... 4 or.

2. NORTZUK EGIN DUGU BIDEA? ..... 5 or.

3. PROIEKTUAREN IBILBIDEA ETA GELTOKIAK ..... 7 or.

4. KIROLAREN ZEIN ESPARRUTAN ARITU GARA? ZEIN ADINEKO GAZTEEKIN? ..... 9 or.

5. KIROL KLUBETAKO KIDEEKIN LANEAN ..... 9 or.

**B. Zer eman du?** ..... 10 or.

6. ONDORIO LABURRAK ..... 10 or.

7. ONDORIO OROKORRAK: JOKO-ZELAI BERRI BAT KIROL EREMUAN HIZKUNTZA SUSTATZEKO? .... 14 or.

**C. Lanerako eta eztabaidarako proposamenak aurrera begira** ..... 17 or.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>





## SARRERA

Nolako aukerak dituzte gaur egungo 10 eta 16 urte arteko haur eta gazteek euren bizitza euskaraz egiteko? Gehienei, eskolak eskaintzen die esparru bat euskaraz aritzeko, baina hortik kanpo?

Esku artean duzun materialak 2016tik 2018ra artean garatu dugun **Dereduko kirola. Ikerketa-ekintza proiektuan** egin dugun bidea laburtzen du, eta atera ditugun ondorioak zein aurrera begira irudikatu ditugun lanerako proposamenak eta aukerak aurkezten ditu.

Proiektu hau haur eta gazteen aisialdiaren esparruan kokatzen da, zehazki kirolean. Eredu horretan, *kirol federatuaren* esparruan aritu gara.

Ikerketa-lana eta esku-hartzea batera lantzea izan da proiektu honen ezaugarri garrantzizko bat. Hurbileko ikerketa egin dugu, klubetan bertan, entrenatzaile eta jokalarik gazteekin mintzatuz, eta kirol-giroaren behaketa bertatik bertara eginaz. Izan ere, helburuetako bat, haur eta gazte horien ahotsak hurbilagoetik ezagutzea zen, haiei protagonismoa eman, eta besteak beste, euren kirolean euskaraz aritzearen inguruan zein bizipen dituzten ezagutzea.

Azterketa hau, esperientzia hau, ez dugu edozein klub eta edozein taldetan egin. Euskaraz aritzeari garrantzia ematen dioten klubetan aritu gara.

Proiektuari "Dereduko kirola" jarri genion izena. Baina izen horrek ez du adierazi nahi hezkuntza arloko "Deredua" nolabait kopia eta kirol arlora ekartzeko asmo bat. Horretan dago, hain zuzen, egindako bidearen ekarpenetako bat: kirol federatuaren esparruan haur eta gazteek euskara gehiago erabiltzeko aukerak eta bideak zabaldu nahi badira, komeni da eskolak egindako lanari jarraipena ematea, baina eskolan erabili diren hainbat irizpide kirol esparruaren ezaugarrietara egokituz eta birpentsatuz.

Horrela emaitza hobeak lor litezkeela uste dugu. Lan honetan egokitzapen horretarako proposamenak eta ideiak aurkituko dituzu laburtuta.

**⟨Kirola⟩ ⇔ ⟨(haurren eta gazteen) euskararen erabilera⟩**  
**binomioan** joko-zelai berri bat eraikitzen joateko  
 nolabaiteko ekarpena izan balitezke,  
 pozik geundeke.



# Zer izan da?

## 1.

### PROIEKTUAREN HELBURUA

Nolako aukerak dituzte praktikan haur eta gazteek euren eguneroko bizitzan euskaraz aritzeko? Azken urteetan gero eta gehiago zabaldu zaie Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako haur eta gazteei eskolaren eremuan euskaraz aritzeko aukera. Baina, hortik kanpo?

Proiektu hau *eskolaz kanpoko* eremu horretan kokatu da, aisialdiaren arloan, eta zehatzago, kirolaren esparruan. Goiko bi galdera horiek kontuan izanik, helburua bi gaitan aurrerapausoak ematea izan da:

- 1) Kirol jarduerak euskaraz izan daitezen behar diren baldintzak, dauden zailtasunak, klubek eman ditzaketen pausoak, eta abar aztertzen aritu gara.
- 2) Kirol jarduera horietan protagonista direnen ahotsak hobeto ezagutzen saiatu gara. Horretarako, klubeko errealitatera hurbildu gara, jokalariei eta entrenatzaile gazteek egunerokotasun horretan dituzten hizkuntza-jokaerak eta bizipenak ezagutu asmoz, modu horretan, aurrera begirako proposamenak egin ahal izateko.





## 2. NORTZUK EGIN DUGU BIDEA?

"D ereduko kirola" proiektuaren prozesuan zehar (2016-2018) batera landu ditugu ikerketa eta ekintza, eta prozesu horretan elkarrekin lanean aritu gara arlo ezberdinetan dihardugun hainbat erakunde eta teknikari.

Proiektuaren zati handi bat UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko ikerlari talde batek garatu du. Haiekin batera aritu dira aisialdiaren eremuan lan egiten duten Urtxintxako eta Euskalzaleen Topaguneko teknikariak. Proiektuak bi erakunde publikoren partaidetza eta babes ekonomikoa izan du: Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia, eta proiektuaren koordinazio eta gidaritza orokorra Soziolinguistika Klusterrak eraman du.

Horiekin batera, proiektua kirol klub jakin batzuetako entrenatzaile, arduradun eta jokalarien inplikazioa eta laguntzarekin egin dugu. Hauek, hain zuzen: Araban, Zaramaga Pilota Elkartea (Gasteiz), Bizkaian Aixerrota Boleibol Taldea (Getxo) eta Padura Saskibaloi Kluba (Arrigorriaga), eta Gipuzkoan Real Sociedad Futbol Taldea (Donostia) eta Zarautz Eskubaloia Taldea (Zarautz).

### PROIEKTUAREN ARDURA, KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

### EHU-REKIN LANKIDETZAN



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BALIOEN FILOSOFIA ETA  
GIZARTE ANTROPOLOGIA SAILA**

### PARTE-HARTZAILEAK



**Urtxintxa**  
KALITATEZKO HERRITARRAK



**euskaltzaleen  
topagunea**

### FINANTZIAZIOA ETA PARTAIDETZA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

### PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN KIROL TALDEAK



### Proiektuko jokalariek

#### Proiektuko Batzorde Teknikoan

- Aritza Escandon  
*Euskalzaleen Topagunea* (2016 eta 2017)
- Begoña Basterretxea  
*Eusko Jaurlaritza*
- Beñat Egues  
*Gipuzkoako Foru Aldundia* (2017 eta 2018)
- Jaime Altuna  
*UPV/EHU. AFIT Antropologia feminista*
- Jone Miren Hernández  
*UPV/EHU. AFIT Antropologia feminista*
- Joxean Amundarain  
*Gipuzkoako Foru Aldundia* (2016 eta 2017)
- Julene Maia  
*Urtxintxa*
- Maite Asensio  
*Urtxintxa* (2018)
- Nekane Jauregi  
*Gipuzkoako Foru Aldundia*
- Pablo Suberbiola  
*Soziolinguistika Klusterra*
- Sonia Perez  
*Euskalzaleen Topagunea* (2017 eta 2018)

#### UPV-EHUko Ikerketa Taldean

- |                        |              |
|------------------------|--------------|
| – Jone Miren Hernández | – Zuzendaria |
| – Jaime Altuna         | – Ikerlaria  |
| – Maialen Altuna       | – Ikerlaria  |
| – Iñigo Beitia         | – Ikerlaria  |
| – Iraitz Otaño         | – Ikerlaria  |

#### Kirol taldeetan

##### Aixerrota taldean

- |                  |                  |
|------------------|------------------|
| – Alberto Olalde | – Arduraduna     |
| – Leire Reina    | – Entrenatzailea |

##### Padura taldean

- |                     |                  |
|---------------------|------------------|
| – Gorka de Juan     | – Arduraduna     |
| – Jon Ander Paredes | – Arduraduna     |
| – Itsaso Paredes    | – Entrenatzailea |
| – Ander Prieto      | – Entrenatzailea |

##### Real Sociedad taldean

- |                  |                  |
|------------------|------------------|
| – Andoni Iraola  | – Arduraduna     |
| – Xabier Abascal | – Hezitzailea    |
| – Mikel Ferradas | – Entrenatzailea |
| – Josu Rivas     | – Entrenatzailea |

##### Zaramaga taldean

- |                          |                  |
|--------------------------|------------------|
| – Jokin Larrañaga        | – Arduraduna     |
| – Zuriñe Diaz de Guereñu | – Arduraduna     |
| – Mikel Isasmendi        | – Entrenatzailea |
| – Ander Sevilla          | – Entrenatzailea |
| – Mikel Larrañaga        | – Entrenatzailea |

##### Zarautz taldean

- |                      |                  |
|----------------------|------------------|
| – Miren Uria         | – Arduraduna     |
| – Karmele Makatzaga  | – Entrenatzailea |
| – Joxi Iruretagoiena | – Entrenatzailea |

**... eta klub horietako kirolari gazteak.**



### 3.

## PROIEKTUAREN IBILBIDEA ETA GELTOKIAK

2016ko martxoan abiatu eta 2018ko amaiera bitartean, proiektu honen ibilbideak une eta geltoki ezberdinak izan ditu. Nagusienak, ondorengo hauek:





#### KLUBEKIN LAN EGITEKO MATERIALA

[2017ko martxotik uztaileira]

Lehen azterketa eginik, klubetan entrenatzaile eta jokalariekin lan egiteko modu berri baten bila aritu ginen. **Talde mailako kirolerako komunikazioan jarri genuen arreta**, eta horretan kokatu genuen euskararen inguruko lanketa. Proposamen horrekin, 2017-2018 denboraldian nola lan egin adostu genuen hiru klubekin.

#### KIROLARI GAZTETXOEKIN LANEAN

[2017ko irailetik 2018ko martxora]

Unitate didaktiko moduko bat osatu genuen, talde bakoitzean **8 saio laburretan entrenatzaile eta jokalariekin modu praktikoa batean** aritzeko; eta elkarrekin egin dugu gero bide hori. **Ikerlariak, gainera, behaketak, elkarrizketak** eta prozesu orokorraren gaineko azterketa egin dute.

#### AZTERKETA, ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

[2018ko martxotik abendura]

Ibilbide honetan, klubekin batera egindako lana bi urratsetan aztertu da ikerketaren ikuspegitik. Oinarri horrek, eta klubekin egindako prozesuak, aukera eman digu ondorengo urteetan “D ereduko kirol” horri begira urrats berriak nola eman daitezkeen irudikatzen. Bidaiaren azken urrats modura, **azterketaren ondorioak atera dira, eta aurrera begirako proposamenak landu.**



#### 4.

### KIROLAREN ZEIN ESPARRUTAN ARITU GARA? ZEIN ADINEKO GAZTEEKIN?

Aisialdiko kirolaren esparrua zabala da. Proiektu honetan klubekin hurbileko lana egin dugunez, ezinbestean hautu batzuk egin ditugu. Adinaren aldetik, 10 eta 16 urte bitarteko gaztetxo eta gazteen eremuan kokatu dugu proiektua.

Egindako beste hautu nagusia kirol esparruari edo antolaketa-sareari buruzkoa izan da. *Eskola-kirolaren* esparruan, esate baterako, badira haur eta gazteek *kirola euskaraz* egiteari begira erronka eta urrats interesgarriak egiteko. Nolanahi ere, ez da hori izan proiektu honetan landu dugun esparrua, besteak beste, eremu horretan alde handi xamarrek daudelako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitateei dagokionean.

Proiekturako hautatu dugun esparrua **kirol federatuarena** da, kirol klub bidez gauzatzen dena. Hainbat arrazoigatik eman diogu esparru horri lehentasuna; besteak beste, gizarte mailan dituen presentzia, esanahi eta inplikazioengatik, eta bere baitan hartzen duen gaztetxoen eremu zabalgatik.

Klubak hautatzerakoan, bestalde, kirol ezberdinen artean oreka bat bilatzen saiatu gara (bakarrera mugatu gabe) eta berdin nesken zein mutilen taldeen presentziaren aldetik ere.

#### 5.

### KIROL KLUBETAKO KIDEEKIN LANEAN

Proiektu hau ez da izan kirol klub batzuen errealitateari *buruzko* azterketa bat, zenbait klubekin batera egindako proiektu edo bide bat baizik. Emandako urratsak klubetako arduradunei proposatu zaizkie lehenik, eta haien adostasunarekin egin dugu lan, haien oharrak eta ekarpenak ere kontuan hartuz.

Ez dugu, gainera, edozein klubekin lan egin. Hizkuntzaren gaiari garrantzia ematen dioten klubak hautatu ditugu. Euren taldeetan euskararen erabilerak presentzia izatea nahi duten klubak; nolabait esan, klubaren identitate-zeinuen artean euskararena ere izan nahi dutenak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, lan egin dugun klubetan eguneroko errealitatea oso euskalduna denik; eta ezta ahalegin horretan zailtasunik edo zalantzarik ez dutenik ere. Baina bai, klub bakoitzaren aldetik gaiarekiko interes bat eta urrats berriak probatzearen aldeko jarrera bat.

Oinarri horrekin, arduradun, entrenatzaile eta jokalariekin proiektu honetan egin den lana hurbilekoa izan da. Saiok hautatutako talde jakinetan egin dira, eta haiekin nolabaiteko prozesu bat egin da. Prozesua bera eta protagonisten errealitatea ikertzei dagokionez ere, tokian tokiko lana egin da: behaketak entrenamendu eta partidetan, elkarrizketak entrenatzaile eta jokalariei, saioetan haiekin sortutako giroaren azterketa, eta abar.



## Zer eman du?

### 6.

#### ONDORIO LABURRAK



##### Kluben euskararen aldeko jarrera.

Aztertutako klubetan badago euskararen sustapenaren eta biziberritzearen aldeko jarrera eta identifikazioa. Aldekotasun horrek oinarri bat eta aldeko testuinguru bat ematen die haur eta gazteen euskarazko erabilerari. Klub hauek ez daukate hizkuntza-plangintza zehatzik, baina erabaki jakin batzuk hartuak dituzte. Horien artean aipagarriena: entrenatzaile euskaradunak izatea eta horiei euskaraz egiteko eskatzea.



##### Hizkuntza-praktikak klubean.

Gazteek nabaritzen dute klub hauek euskararen biziberritzearen alde egiten duten lana. Jabetzen dira euskarak eremu horretan baduela garrantzia eta babes maila bat. Adierazgarria da, esaterako, aztertutako gazteetako batzuentzat klubeko entrenamendua dela -eskolarekin batera- euskararekin gehien lotzen duten gunea. Bestalde, klubetako zuzendaritzetan hartzen diren erabakiak (euskaraz aritzea) ez dira erabaki hutsean geratzen. Klub hauen kasuan, praktikan ikusi da entrenatzaileek bere egin dituztela ideia horiek.



##### Entrenatzaileak erreferente.

Haur eta gazte kirolarientzat entrenatzaileak erreferente eta gidari dira. Kirola bera, eta entrenatzaile lanetan aritzea, gustuko dituzte. Giroa zaintzen dute eta gazteekin hurbiltasun, errespetu eta txantxa giro arteko oreka ona lortu ohi dute. Hizkuntza-erabilerari dago-kionean ere erdigunean kokatzen dira, eta euren erreferente paperak aukerak eskaintzen ditu taldeko hizkuntzan moldaketak egiteko.

##### Entrenatzaile hiztunak.

Entrenatzaileek rol garrantzitsua jokatzen dute talde hauetako hizkuntza-erabileran eta horren jakitun dira. Euren euskararen erabilerak jokalaria gazteengan eragina du, eta gazteak euskara gehiago erabiltzera bultzatzen ditu. Horrekin batera, gaztelania une jakinetan erabilita, gazteen mintzapraktiketara hurbiltzen dira. Hurbiltasun eta konfiantza horri esker, euskararen sozializazioa modu errazago batean eman daiteke.



### Entrenatzaileak (gehienbat) euskaraz.

Aztertutako talde eta egoeratan zenbait ezberdintasun badira ere, oro har, behatutako entrenatzaileak euren kirol-jardueran gehienbat euskaraz aritzen dira taldeko jokalariekiko harremanean. Baita jokalarien arteko jarduna gehienbat gaztelaniazkoa denean ere.



### Gazte jokalarien hizkuntza-gaitasuna.

**Aitortua.** Aztertutako taldeetako gazte kirolari gehienek euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu moldatzen direla adierazi dute. Hau da, gaztetxo gehienek euren burua erdi bidean kokatzen dute. Oso gutxi dira erdaraz hobeto moldatzen direla aipatzen dutenak. Euskaraz hobeto moldatzen direla diotenak, berriz, ingurune euskaldunetakoak dira.

**Behatua.** Zarautzen ikusi dugu ia talde osoak eta Realean talde erdiak euskaraz aritzeko erraztasun handia duela, euren herrietan, familietan, lagunartean edota eskolan hala egiten ohituta daudelako. Realeko beste erdiak eta Gasteizko, Getxoko eta Arrigorriagako taldeetako gehiengoak, berriz, halako profila du: gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute, nahiz eta egunerokotasunean gaztelaniaz gehiago hitz egin.



### Gazte jokalarien hizkuntza-praktikak.

Entrenamenduetan oro har jokalaria gazteen artean gaztelania gehiago entzun dugu euskara baino. Talde batetik bestera alde nabarmenak daude, batez ere gazteen herriaren euskalduntasunaren arabera (euskarazko erabateko jardunetik ia erabat gaztelaniaz aritzen direnetera). Oro har, halere, jokalariek euskara gehiago erabiltzen dute entrenatzaileei hitz egiterakoan, haien artean baino. Bestalde, aztertutako taldeetan badira jokalaria batzuk euren inguruko lagunekin eta etxekoekin euskaraz aritzeko ohitura nabarmena dutenak. Halakoei, proiektu honen harira taldean sortu den hizkuntza-giroak lagundu die euskara kirol taldean gehiago erabiltzen.



### Hizkuntza-mudantza.

Nerabezaroan gertatu ohi den euskartik gaztelaniarako hizkuntza-mudantza edo aldaketa maiz agertu da gazte jokalaria hauen azalpenetan. Baina salbuespen interesgarri batzuk ere jaso ditugu: kirol-arloan gaur egun euskara gehiago erabiltzen duten jokalaria gutxi batzuk topatu ditugu.



### Talde-kiroletan, komunikazioa oso garrantzitsu.

Jokalarien artean komunikazio zuzena eta etengabekoa edukitzea sekulako abantaila omen da kirol emaitzarako. Horregatik, entrenamenduetan lantzen den arlo garrantzitsua izaten da, eta adinean gora joan ahala handitzen eta hobetzen den kontua da. Proiektu honetan ikusi dugu, bestalde, komunikazioa lantzea taldea indartzeko lagungarri izan daitekeela eta, lanketa horren testuinguruan, euskararen erabileran talde mailako erronkak edo helburuak jartzeko ere aukera onak sortzen direla.




### Esaldi laburrak, eta emozioak nagusi.

Behatu ditugun entrenamendu eta partidetan ez dira elkarrizketa luzeak ematen. Kirol-hizkeran bi esparru nagusi daude: emozioen espresioak batetik, eta bestetik kirol terminologia eta aginduen adierazpenak. Poza edo haserrea bezalako emozioen adierazpenetan, euskarazko esamolde askoz gutxiago sortzen dira agindu edo azalpen teknikoetan baino. Kirol jardunaren intentsitateak emozioak azalerazteko balio du (entrenatzaile eta gazteen aldetik). Halakoetan, emozioak adierazten dituzten esamoldez betetzen da hizkuntza-jarduna.



### Entrenamenduetako giroa.

Kirol talde hauetako entrenamenduetako giroa lasaia eta erlaxatua da, baina aldiberean formaltasun eta diziplina handia du. Haur eta gazteen euskarazko erabileran urrats berriak emateko aukera onak eskaini ditzake egoera horrek: barrea eta ziria oso presente daude, baina errespetuzko harremanak dira, irainik gabeko txantxa giroa. Kideen arteko giroa (oso) ona izaten da, oro har, intentsitate eta erritmo handiko denbora tartekin eta bere errutina eta errituak ere errepikatuz.



### Hizkuntza-lanketa egiteko uneak.

Partidetako eta entrenamenduetako une ezberdinak erabili daitezke hizkuntza lanketa egiteko, ez genieke begiratu behar soilik entrenatzaileek azalpenak ematen dituzten tarteei: entrenamenduetako jolasak emozio uneak dira, materiala jasotzeko uneak edo luzatze-ariketak egiteko uneak jokalarien artean elkarrizketak sortzeko tartearak dira, partida bukaeran agurtzeko momentua lehiakideak izan diren beste gazteekin hitz egiteko unea izan daiteke, eta abar.



### Gazteen hizkuntzekiko bizipenak eta iritziak.

Gazte hauen artean (jokalariak zein entrenatzaileak) euskararekiko balio, pertzepzio edo sentimendu ezkorrik ez dugu jaso. Euskaraz hitz egin behar ote den galdetuta baietz erantzuten dute, eta gaztelaniaz hitz egiteko duten "ohitura" aipatu ondoren, gehien errepikatzen den argudioetako bat da "euskararen desagertzea arriskua". Horrekiko ardura azaltzen dute, baina, era berean, hizkuntzen artean aukeratzeko norberaren "autonomia", "askatasuna" eta "erantzukizuna" ere ageri da zenbait diskurtsotan. Alde horretatik, ez dirudi gazte hauetako batzuk ondo hartzen dutenik eskola eremutik kanpo euskaraz egiteko derrigortasunik.



### Hizkera informala.

Gazte kirolarien zein entrenatzaileen hizkuntza-praktiketan ahozkotetasunak eta informaltasunak pisu handia hartzen du, baina hizkera informal hori euskararekin lotzea kostatzen da egiten zaie gazte gehienei, askotan gaitasun nahikorik ez dutela sentitzen baitute. Hizkera informal hori euskaraz edo gaztelaniaz izan, errealitate soziolinguistikoaren arabera ezberdintasunak topatu ditugu, gehienbat: Gasteizen, Arrigorriagan eta Getxon gazteek modu informalean nagusiki gaztelania erabiltzen dute. Zarautzen hizkera informal hori euskaraz da, eta Realean berriz, tarteka euskaraz da, baina halakoetan gaztelaniaren presentzia nagusitzen da.



### Kode-nahasketa.

Oso ohikoa da esaldi berean euskara eta gaztelania erabiltzea. Dena dela, ohararazi behar da interferentzia, batez ere, gaztelaniatik euskarara geratzen dela eta, askoz gutxiagotan, alderantziz.



### Bizipen positiboak.

Gazteengan eragiteko gune estrategikoa izan daiteke kirolarena, hezkuntzak eskaintzen duen gune formalaz gain, gune informalagoetan ere euskara eroso erabil daitekeela erakutsi baitakieke gazteei. Horretarako, *gune linguistikoki zainduak* egokiak izan daitezke euskara bizipen positiboekin lotu eta ohitura linguistiko berriak hartzeko.



## 7.

**ONDORIO OROKORRAK: JOKO-ZELAI BERRI BAT KIROL EREMUAN HIZKUNTZA SUSTATZEKO?****Kirolari arreta berezia eta berezitua.**

Hiru urteko ibilbideak aukera eman digu kirol eremura eta eremu horretan gaztetxoek duten partehartze horretara gerturatzeko. Esperientzia ezin aberatsagoa izan da eta hortik ateratako ondorio nagusia honela laburbildu dezakegu: *kirolak arreta berezia eta berezitua merezi du, egungo gizartean ez ezik, gazteen bizitzan eta bizimoduan ere aparteko tokia duelako.*

**Aisialdia funtsezko gazteen identitatean.**

Ikerketak berretsi du aisialdia funtsezko eremua dela gazteentzat, euren garapen orokorrerako, gozamenerako eta, bereziki, euren identitatea osatzeko. Aisialdiaren barruan kirolak pisu nabarmendua duela argi ikusi da.

**Eskolatik kanpo, arau nagusia, gaztelania.**

Gazteen bizitzan aisialdiak eta kirolak pisu berezia dute, askotan eskolaren bizipenekin kontrajartzen direlako. Eskola, orohar, pisutsua da eurentzat; aisialdiak aldiz arintasuna eta askatasunaren sentazioa dakarkie nagusiki. Hizkuntzaren ikuspegitik kontraste handia topatzen da. Eskolaren araua euskaraz egitea da. Aisialdian aldiz, eremu oso euskaldunetan izan ezik, orokorrean, gaztelania da norma. Zenbait testuinguruetakoa gazteek diote arrotza dela euskaraz hitz egitea eta entzutea eskolatik kanpo – “zer ari zara euskaraz? Ez gaude eskolan!!!” –entzun dezake gazte batek lagunekin jolasean ari dela euskaraz egiten badu.



### **Bi planoen bereizketa txikitzen saiatu.**

Alde horretatik, proiektuan hainbat egoeratan ikusi den banaketa, nolabait ondorengo irudiak laburtuko luke: agertoki (formal) batean euskarazko jarduna (*front stage*) eta nagusiki gaztelaniaz aritzen den atzeko plano bat (*back stage*).



Hain zuzen, proiektu honen ondorioetako bat da, kirol arloko euskararen erabileraren sustapenean, ahalegina egin behar dela bi plano horien arteko zubiak eta loturak bilatzeko. Aldiz, kirol arloan hizkuntzaren sustapena egiteko moduaren arabera, badago arriskua bi plano horiek gehiago bereizteko edo urruntzeko.

### **Kirola, eskolaren eta kalearen arteko hirugarren esparrua?**

Eskolako esparrua eta eskolaz kanpoko (kalea, aisia...) arrazoi ezberdinengatik, elkarren “etsai” edo kontrajarriak dira gazteen begietara. “Tentsio-harreman” horretan kirolak paper berezia du, pribilegiatua agian. Izan ere, erdibidean dagoen espazio gisa irudikatu daiteke. Ikerketaren ondorioetan kirola “hirugarren esparru” moduan irudikatu da, eskolaren formaltasuna ez duelako, eta aisialdi libreak dituen ezaugarriak ere ez dituelako.





### **Kirola: antolaketa helduek, protagonismoa gazteek.**

Kirola aisialdi "monitorizatuaren" kategorian kokatu dugu, bertan helduek eta gaztetxoek bat egin dutelako aisialdiko jarduera atsegin bat egiteko asmoz. Helduen ardura da gune hori antolatu eta kudeatzea. Gazteak, kirolariak kasu honetan, bertako protagonistak dira, eurak gabe espazio horrek zentzurik izango ez lukeelako. Oinarrizko banaketa hori errespetatu behar dela uste dugu eta horren baitan ardurak eta eginbeharrak onartu behar direla, baita eskubideak bermatu ere.

### **Klubaren egitekoa: euskararentzat ingurune babestua sortzea.**

Kluba baldin bada helduen figura ordezkatzeko duen erakunde nagusia, bere lana litzateke hizkuntzaren inguruan giro babestu bat sortzea, hizkuntzarekiko mezu argiak eta zehatzak emanez eta euskararen garapenerako baldintzak jarritz. Euskarari bidea ematea edo lurra jartzea litzateke bere lan nagusia.

### **Gazteen hizkuntza jokaera taldearekiko konpromisoan kokatu.**


Gaztetxoek kirolean bilatzen duten esperientzia aberatsa eta gozagarria babestu behar da, hori baita eremu honek eurekiko duen erakargarritasuna. Baina, aldi berean, klubarekiko eta bere taldearekiko duten konpromisoa argi eduki behar dute. Bere hizkuntza jokaera bete beharreko araua baino, bete beharreko konpromiso horren parte izango litzateke.

### **Taldeko bizipen kolektiboa euskarara hurbiltzeko bide.**

Gazteentzat erreferente garrantzitsua da bere kirol taldea. Pisu handia du bere egunerokoan, bere izaeran, bere identitatean. Indartsua da taldea, eta gazteak "indartsu" sentitzen dira talde horren parte izanik. Nerabeen kasuan, izaera eta identitatea eraikitzen diren une horretan, *agentzia* (edo ekimena) modu kolektiboan bizi ohi dute. Proiektuak erakutsi digu hizkuntza taldeka eta taldean bizitzeko zerbait dela. Eta adin horretan bizipen kolektibo hori hizkuntzara hurbiltzeko modu interesgarria izan daitekeela uste dugu. Bizipen honetan entrenatzailea erreferente eta gidari izan daiteke, baina taldearen (hizkuntza) *agentzia* eta taldearen (hizkuntza) *ahalduntzea* da helburua. Entrenatzailea gidaria eta gazteak protagonistak dira.

### **Taldeko komunikazioa, hizkuntza helburuak lantzeko aukera emankorra.**

Taldea osatzea eta trinkotzea da kirol arloan eginkizun nagusienetarikoa bat. Taldekako zein bakar-kako kirol praktikan ere "txapelak" eta dominak jasotzen direnean egindako ahaleginen atzean beti aipatzen da taldea. Talde egite eta izate prozesu horretan pertsonen arteko harremanak dauka erdigunean, eta harreman horiek ehuntzeko eta trinkotzeko komunikazioa ezinbestekoa da. Ikerketan jaso den moduan, egun, eliteko kirolean ere aitortzen da komunikazio on batek hobeak egiten gaituela kirolari bezala (bakarka zein taldeka). Proiektuak erakutsi duenaren arabera komunikazioa helduleku baliotsua izan daiteke gazteekin hizkuntzari (euskarari) begirako zenbait helburu lantzen hasteko.



# Lanerako eta eztabaidarako proposamenak aurrera begira



Hiru urteko ikerketa eta esku-hartzeko prozesu honek zenbait ondorio utzi dituela pentsatzen dugu, baita lanerako eta gogoetarako ildoak agerian jarri ere. Hizkuntzaren ikuspegitik, abiatu berriak gara kirol eremuan eta, orain arte eta oraintxe bertan, zenbait esperientzia eta egitasmo garatzen ari badira ere, asko egiteko dagoela uste dugu. Hona hemen “D ereduko kirola” izeneko proiektu honetatik aurrera begira lanerako, hausnarketarako eta eztabaidarako mahai-gainean jarri nahi genituzkeen zenbait gai:

## **Euskararen eta gaztetxoaren begiradatik, kirola birdefinitu.**



Kirolaren birdefinizio bat osatu beharko litzateke, batetik, hizkuntzaren eta euskararen begiradatik egina; bestetik, hiltun gaztetxoaren begirada eta (hizkuntza) errealitate anitza ere oso aintzat hartu behar dira birdefinizio horretan.

## **Eskolaren eta kirolaren arteko jarraikortasuna nola?**

Txosten honetan aipatu den moduan, kirolak ez du zertan eskolak egindakoa errepikatu, eremu bakoitzaren izaera eta helburuak oso ezberdinak direlako. Baina ezinbestekoa iruditzen zaigu lantzea, definitzea eta zehaztea eskolaren eta kirolaren arteko jarraikortasuna zertan datzan. Kirola hirugarren esparru gisa irudikatu dugu ikerketan, hezkuntza sistemaren eta aisialdi librearen (“kalea”, nolabait esateko) artean kokatuta dagoelako. Hirugarren espazio horren izaera hobeto eza-gutu eta bertan garatu nahi den estrategia definitu beharra dagoela uste dugu. Hizkuntzaren ikuspegitik zein, oro har, haur eta gazteen sozializazio ikuspegitik oso eremu aberatsa dela uste dugu.

## **Kirol arloko protagonista bakoitzaren zereginak.**

Kirol eremuan gaur egun parte hartzen duten agente bakoitzaren zeregina sakonki aztertu edota berraztertu behar dugula pentsatzen dugu. Bakoitzak dituen betebeharrak eta hizkuntzaren ikuspegitik dagozkienak aztertu eta definitu beharko lirateke, beti ere hirugarren espazio horrek hizkuntzaren ikuspegitik duen potentzialtasuna kontuan hartuta. Kluben gaineko erakundeak (federazioak, eta abar.), klubak, kirolarien taldeak (entrenatzaileak eta gazteak) eta gazte hauen tutore edota gurasoak dira eremu horretako protagonistak. Bakoitzak duen zereginen gainean gogoetatzea garrantzitsua iruditzen zaigu.



### **Gune babestua izateko estrategiak.**

Erreminta eta estrategia zehatzak, egokituak eta aproposak diseinatu eta garatu behar dira, baitetik, kirol eremua hizkuntzaren ikuspegitik *gune babestua* izateko eta, bestetik, kirolari guztiek gune horretan eurentzako aproposa den toki bat izateko, beti ere, euren gozamena eta gazteen agentzia (edo ekimen propioa) bereziki zainduz.

### **Gazteen eskubide, berdintasunaren ikuspegitik.**

Garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan hartzea gazte askorentzat aisialdi monitorizatua (eta bereziki kirola) dela eskolatik kanpo euskaraz aritzeko gune babestu bakarra. Aukeren berdintasunaren ikuspegitik, gazte horiek eskubidea dute eskolan egiten duten ahaleginak jarraipena izan dezan eta hizkuntz gune babestu bat izateko, zeinetan euren (hizkuntza) ahalegina aitortua izango den.

### **Kirol taldea: hizkuntza bizipen berrietarako lur egokia?**

Gazteen bizitzan funtsezkoa den kirol taldea esparru oso interesgarria da, bertan lan kooperatiboaren oinarriak landu eta finkatu daitezkeelako. Lur horretan hizkuntza (hizkuntza ohiturak, jo-kaerak...) proiektu kooperatibo baten parte izan daitekeela uste dugu.



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**Urtxintxa**  
KALITATEZKO HERRITARRAK



**euskaltzaleen  
topagunea**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA